

Karkara

karkara.eus

 Orioko eta Aiako aldizkaria • 2019ko maiatzaren 17a • Hauteskunde bezperako zenbaki berezia. 27.urtea.



Herriarena da hitza

Hauteskunde atariko mahai-inguruan lau urtean egindakoa eta lau urtera begira egitekoaren gainean hausnartu dute.



Orain

ORioko Aukera INdependientea



1. Jose Angel Iparragirre 2. Jexux Mari Arriaran 3. Igor Acero 4. Ekiñe Miralles 5. Eder Etxeverria 6. Cristina Salsamendi
7. Arantxa Manterola 8. Ane Agirrebeña 9. Jon Otaegi 10. Jaime Colado 11. Luis Mari Aduriz 12. Iñigo Arruti 13. Miriam Uranga

Herritik herriarentzat, herriko gaietan parte hartuz



UDAL HAUTESKUNDEAK ZENBAKI BEREZIA

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Erredaktore burua

Ainara Lasa

Erredakzio taldea

Jon Agirresarobe
Onintza Aiestaran
Aiora Larrañaga
Iñigo Exposito
Dorleta Agiriano
Miriam Jarcia
Iñigo Gaiton
Jon Garate
Elizabete Manterola
Intza Unanue
Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Sonia Albizu

Ale honetako kolaboratzaileak

Orioko Xaltxerak
Emakume Taldea
Xabier Etxeberria
Jakes Goikoetxea

Diseinua

Saioa Perona

Banatzailak

Manex Dorronsoro (Orio)
Nadeth Arruti (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza S.A.L
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.450 ale
KARKARA ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.
Karkaran argitaratutakoa
berreman daiteke, osorik
edo zatika, baldin eta iturrur
aipatzen bada

TOKIKOM



LAGUNTZAILEAK:



Aiako Udala



Orioko Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Gutunak.....	4
Kronika: <i>Legealdi bat, lau urte</i>	6
Atzera begirakoa	
Orio.....	7
Aia	10
Adarretatik helduta: <i>Ez da kasualitatea</i>	13
Aia: alkategaiei elkarrizketa	
EH Bildu	14
EAJ.....	15
Hauteskunde zerrendak	18
Erreportajea: <i>Apirilekoek eman dutena</i>	20
Mahai-ingurua	22
Mahai-inguruaren balantzea: <i>Bene-benetan hauxe da</i>	32
Adarretatik helduta: <i>Hauteskritika</i>	33
Herritarren galderak	34



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Pozik nago

Pozik nago. Pozik nago arreta handiz prestatutako mahai inguruan, eskatutako baldintza guztiak bete genituelako: puntualitatea, bi minutuko denbora tartean eraginkortasunez galdera guztiei erantzutea eta, noski, euskaraz. Pozik, gure ardatz diren zintzotasuna eta ardura agerian geratu zirelako.

Pozik nago, uneoro, Orion, EH Bildu gobernuan egon zeneko erreferentzia positiboak egin zirelako, nahiz eta lan on hori nork egin zuen aitortzea batzuei asko kostatu. Baina bai, horrela da. Nire taldekide den Beñat Solaberrietak eta bere lan taldeak lan bikaina egin zuten: mahaiak sortu, aurrekontu parte hartzaileak bultzatu, Mutiozabalekin amestu, topagune berdea bideratu, Motondo berreskuratzeko lan egin, kanpina indartu, pertsonak erdigunean jarri... 2011-2015 legealdian egindakoak dira horiek guztiak.

Pozik nago, batzuentzat *berriak* garela dioten arren, proiektuak proposatu eta lan egiteko gaitasuna erakutsi genuelako.

Pozik nago, duela hilabete batzuk hasi genuen ibilbidean beste urrats sendo eta ahaldundu bat emateko gai izan garelako.

Baina, batez ere, txoratzen nago, nirekin bat egiten duten guztiak orain artean egindako lanaz harro daudelako.

• **Anuska Esnal.** EH Bilduren Orioko alkategaia

Mahai-inguruaren ikuspegia

Alkategaien eztabaidak ez zuen sorpresa handirik eman, politikoki zuzena izan zela esan daiteke.

Agintaldiaren balantzea egiterakoan garbi ikusi zen balorazioa desberdina egiten zutela gobernuan egon direnek eta beste

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

hiru talde politikoez, baina datuak temosoak izaten dira, eta hor daude.

Azpiegitura eta zerbitzu berriak beharretan saiatu ginen airean egiten diren gazteluak lurreratzen galdera batekin: 2011ean hondartza inguruan aurreikusitako Auditorium-a, beharrezkoa zen?

Oriotarrek alokatzeko etxebizitzak eskatzen dituzte gehienbat, 137 eskaera daude gaur egun, 50etik gora izango dira berriak, baina horiek egin arte datozen bizpahiru urtetan etxe hutsekin lanketaren bat egin beharko da.

Orioko turismo eredua zehazteko Turismo teknikari berriak esateko eta egiteko handia dauka, jakinda herriak gaitasun asko dituela, eta honekin bai talde politiko guztiok gaudela ados.

Gizarte laguntzetan lan asko dago egiteko, orain arte lan gutxi egin delako. Pobreziaren diagnostikoa egin berria daukagu, eta oinarri sendoa da hasteko.

Euskalduna, arrantzalea eta arraunzalea da Orio, horiek sendotzeko egin dugu orain arte lanaeta saiatuko gara gure izaeran

diren oinarriko zutabeak zaintzen.

Bukatzeko, ideia hau saiatu ginen helarazten: herriak ondo funtzionatzeko bi euskarri nagusi dituela, urteroko aurrekontuak (zenbat, non eta nola gastatu) eta politikoen irizpideekin aurrera eramateko udaleko pertsonalaren lan egokia.

• **Orioko Orain taldea.**

Emaitza positiboa

Maiatzaren 26an izango diren hauteskundeetara alkategai aurkeztuko diren lau hautagaien eztabaida izan zen kultur etxean.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu bertaratu ziren herritarrei eta baita antolakuntzari, ere joan ezin zutenek Internet bidez jarraitu ahal izan zutelako saioa.

Eskertzekoa da ere, hautagai guztiek momentu oro azaldu zuten errespetuzko jarrera.

Orioko EAJk debatearen beraren eta bertan hitz egindakoaren balorazio positiboa egiten du, hainbat arrazoiengatik. Etorkizunerako elkarlanerako aukerak mahai gainean jarri zituztelako hautagaiek batetik. Bestetik, EAJko hautagaia den Lourdes Salsamendik izandako paperarengatik. Lourdesek, bere taldearekin batera, herriarentzat onuragarri izango diren proposamen konkretuak aurkeztu zituen hautagaia izan zelako. Faltan bota ziren beste hautagai batzuek legealdi berrirako dituzten proposamen zehatzak. Etorkizunerako proiektu bat aurkeztu zuen Lourdesek, herritarrekin eta herritarrentzat lan egiteko ilusioa plazaratu zuen.

Etorkizunari itxaropentsu begiratu nahi diogu, elkarlanean, Oriorentzat eta, batez ere, oriotarretzat etorkizun bat irudikatzen dugulako.

Karkarak antolatutako debateak aukera bikaina eman zigun hautagaiei irudikatzen dugun Orio



lortzeko zein proposamen ditugun plazaratzeko. EAJko hautagaitzatik aurkeztu genituen proposamenak azaltzea erantzukizun handiz hartu nahi izan genuen. Gure proposamenak, herritarrekin eta eragileekin izandako elkarrizketa eta lanketen ondorio izan dira.

Orio sendo bat nahi dugu eraiki, etorkizuneko erronkei dagokion moduan heltzeko. Gure sustraletan errotutako proiektua nahi dugu. Oria ibaia, *erriyua* eta *herriya*, ardatz bat da herriko egituraren eta ardatza izango da gure egitekoan ere.

Izan ere, Ibaia, *erriyua*, oriotarrentzat ogibide izan da, aisialdirako gunea, lehiarako prest izaten lagundu digu. *Erriyo* inguruan sortu eta hazi da gure herria. Bere lur emankorretan landatu ditugu haziak. Oriorako gure proiektuak ezin du ibaia alde batera utzi, are eta gehiago: *erriyoan* oinarritutako programa estrategikoa osatuko dugu.

•Orioko EAJ

Plazetako herri bat

Kaixo, lagun!

Ezin hasi testu hau azken lau urteetan zuen konfiantza eta laguntza eskaini diguzuen aiarroi gure esker ona adierazi gabe, babes hori gabe ezinezko bailitzateke egiten dugun saiakera. Gure herri eredia hori da, elkarlanean eta guztion interesen defentsan oinarritua, eta horixe ahalegindu gara aurrera eramaten, oztopoak oztopo. Gure izaeraren muinean txertaturik dugu autokritika, pasatakoaren analisi konkretua egin eta erauzi, iruntzi eta eraldatzea, gaizki egindakoa aldatzea: badakigu ez dugula asmatu udaletxea herriarekin lotuta mantentzen, komunikazioan, gehiegi lotu garela instituzioaren funtzionamenduari behaketan, kontuan harturik eskuak lotuta genituela EAJren udal

gobnuaren gehiengo eta jokaera autokratikoaren aurrean. Ikasi dugu, eta ate ondoan dugun ziklo berri honetara indar berriekin eta ikasgai zaharrekin gatoz. Bai, betikoak gara, baina inoiz ez bezala gatoz.

Izan ere, gu ez gatoz joko zelaia lokaztu eta aurkari politikoa gutxietsiz aiarron interesak monopolizatzerara, heldutasun politikoz arazo kolektiboak erantzun kolektiboak ematera baizik. Benetan sinesten dugu udala erreminta erabilgarria dela aiarron bizi-baldintzak hobetzeko, eguneroko duin baterako bitartekoak eta zerbitzuak eskaintzeko; herria eraikitzeko, ez lagun interesdunen hotelak. Beharrezkoa baita hauteskunde aurreko hilabeteetan agintean dagoen alderdiaren kanpaina bultzatzeko herrian egiten diren moldaketetan erabilitako dirua lehenetsuzko proiektuetara bideratzea. Horregatik, jasandako blokeoaren gaineratik, ez diogu inoiz utzi partikularren eskutik udalean ekimenak aurkezteari, ondorengoak aurrera eramane diren adibide direlarik:

- Langabetu edo pentsiodunek udal ikastaroetan %50eko deskontua izatea.
- Euskara ikasi nahi duenak diru-laguntza bermatua izatea.
- Frontoi zein probalekurako egokitutako sarrera bermatzea, aiar guztiok iritsi ahal izateko.
- Udaletxera sarbidea gurgildun aulkientzat egokitzea.
- Etxetxotik Zerraraino errepidearen zabalera osoan lehenetsuna oinezkoek dutela kontuan harturik, pasabide seguru bat Estankotik Zerraraino, gure proposametik urrun dagoen lardaskeria hau gauzatu arren.
- Andatzen, Babes Ofizialeko Etxebizitzetatik plazara errepidea saihesten duen irtenbide baten proposamena, egun aztertua eta

garatua izaten ari dena.

- Igerilekua eremu irisgarria izan dadin eraldatzea, garabidean dena. Hori horrela, garbi utzi nahi dugu gure elkarrizketa markoa herria eta udalaren artekoa dela, guztion artean aiarron benetako arazoei erantzunak bilatu eta emateko. Beraz, ongi gauzatu diren proiektuengatik eskerrak ematen ditugun arren, tristea iruditzen zaigu EAJren elkarlanerako borondate oro fatxada hutsean geratzea, Aiaren eraikuntzan erabili beharreko indarrak egindako astakeriak zuritzen galtzea edota herritar partikularrei erantzunik ez ematea. Alferrik da behin eta berriz denon ordezkari izan nahi dela saltzea, herri erdia ahazten denean, gure gomendio eta proposamenak gutxiesten direnean. Bada garaia udala osatzen dugun elementu guztiok gure aniztasunean herriaren aniztasuna islatzeko, marra gorriko politikarik gabe aldi bereko adostasunak lortu eta guztion beharrei erantzungo dien bide-orri bat gauzatzeko, baliabideak gehien behar dituzten herritarren eskura jarriz eta ez hauteskunde aurreko. Guk, orain arte bezala, eskuak luzatuak ditugu.

Betikoak gara, bai, baina indiferentziari aurre egiteko asmoz gatoz. Gauzak ez baitira horrela, horrela egin ditugu, bestela egin zitezkeen modu berean. Sinetsirik gaude badugula, gure tresnaren xumetik, galdutzat jotzen duguna aldatzeko adina indar, gurea ez dadin kartoizko herri bat izan, gurea Aia anitz, ireki, bizi eta koloretsua izan dadin; Aia aiar guztiok nahi duguna izan dadin: postaletan ez, plazetan bizi den herri bat. Eskura dugu, eskutik bazatoz, gurekin eraikitzen baduzu. Betikoak gara, bai, baina inoiz ez bezala gatoz eta dena aldatzeko prest gaude.

•Aiako Eh Bildu



Udalbatzar batean ateratako argazkia. KARKARA

Trantsizioko legealdia

“Arrantza profesionalaren azken urteak izango dira, eta etxeko lanak mahai gainean daude.”



Laister hasiko dira moilako bi errepedeak egokitzeko obrak. KARKARA

Lau urte pasa dira 2015eko hauteskundeetatik. Berritasun bakarra ekarri zuen ordungoak, PSOE-k zinegotzia berreskuratu zuen EH Bilduren kaltetan. Horrek Udalaren osaketan aldaketa ekarri zuen, ez zen aurreko legealdiko formula errepikatu, eta alderdirik bozkatueneko zerrendaburua, EAJ-ko Jose Angel Zaldúa, izendatu zuten alkate EAJ sei botoekin eta PSOE-renarekin.

Denborarekin ordea, kontuak aldatu egin dira. Bi urte pasa baino lehenago, alkate eta zinegotzi batzuen ordainsariak jaitsi arazi zituen oposizioak, PSOE-ko zinegotzia barne.

Geroztik, behin baino gehiagotan egin dute bat oposizioko 7 zinegotzietatik EAJ 6 zinegotzirekin gutxiengoan lagaz. Esanguratsua izan zen nola aurkeztu zuten oposizioko hiru alderdiek Dikeko etxebizitzaren plana, Kofradia barne sartzen zuena, Garate familiako ordezkariekin batera.

Eta horrela, formula antzekoekin, negoziatu ahal izan ditu oposizioak urteroko aurrekontuak. Hauen ekarpenak onartu behar izan ditu EAJ-k.

Ekipamenduei dagokionez, trantsizio legealdia izan da. Aurki plaza peatonalizatzeko lanak hasiko diren arren, Udalak ez du Kofradiakoaz gain bestelako lanik aurreikusten. Horren arrazoia inbertsioak egiteko dagoen tarte txikia da, aurrekontuaren %3,73 hain zuzen. Hala eman zuen aditzera Udalak 2017ko azaroan Elhuyarren bitartekaritzarekin herritarrekin egin zituen bileretan.

Ikusteko dago, beraz, aurrerantzean zein bide hartuko duen Orioko Udalak. Arrantza profesionalaren azken urteak izango dira, eta etxeko lanak mahai gainean daude. Plan Orokorra bukatzeko dago eta turismoaren plan estrategikoa egitea ezinbestekoa dirudi.



Dikeko eremua. KARKARA




Atzera begirakoa: politikaren bilakaera, pausoz pauso

Azken lau legealdietan Aiako eta Orioko Udaletan ibili diren alderdien irakurketa egiteak **politikak izandako bilakaera** ezagutzeko ere balio dezake. 2003ra egin dugu salto, eta pausoka pausoka 2019ra iritsi gara.




2003-2007

	Botoak	Ehun
EAJ / EA	1703	%83.44
Talai Herri Plataforma	536	%26.26
PSOE	236	%11.56
PP	102	%5.0




2007-2011

	Botoak	Ehun
EAJ	857	%34.68
EAE-ANV	689	%27.88
EBBAZ	486	%19.67
EA	202	%8.17
PSOE	177	%7.16
PP	60	%2.43




2011-2015

	Botoak	Ehun
EAJ	1.268	%43.89
BILDU-EA-ALTERNATIBA	1.038	%35.93
ORAIN:ORIOKO AUKERA I.	395	%13.67
PSOE	113	%3.91
PP	38	%1.32
ARALAR	37	%1.28



2015-2019

	Botoak	Ehun
EEAJ	1.133	%41.79
EH Bildu	890	%32.83
ORAIN:ORIOKO AUKERA I.	433	%15.97
PSOE	236	%8.71
PP	19	%0.7





Jose Angel Zaldúa -EAJ



Angel del Hoyo -EAJ



Emeterio Iribar - EH BILDU



Aitziber Campos -EAJ



Bixente Lasa -EH BILDU



Eugenio Cotado -EAJ




Gotzon Igoa -EH BILDU

2015-2019



Eli Bello-EAJ



Aizpea Ubegun-EH BILDU



Lourdes Salsamendi -EAJ



Miriam Uranga-ORAIN



J.A. Iparragirre-ORAIN



Ana Priede-PSE/EE




Iñigo Arruti -ORAIN




2003-2007

	Botoak	Ehun
EAJ	672	%84.21
LAIA Herri Plataforma	202	%25.31
EA	118	%14.79
PP	8	%1.0




2007-2011

	Botoak	Ehun
EAJ	561	%62.89
EAE-ANV	243	%27.24
EA	81	%9.08
PP	7	%0.78




2011-2015

	Botoak	Ehun
EAJ	564	%54.02
Bildu-EA-Alternatiba	463	%44.35
PSOE	12	%1.15
PP	5	%0.48



2015-2019

	Botoak	Ehun
EAJ	579	%58.25
EH Bildu	403	%40.54
PSOE	12	%1.21





Nekane Arrizabalaga-EAJ



Asier Iburguren-EAJ



Eñaut Guruzeaga-EH BILDU



Sergio Cubero-EAJ



Aitor Arregi-EH BILDU



Arkaitz Iruretagoiea-EAJ



Kontxi Lazkano-EH BILDU

2015-2019



Jon Ander Azpiroz-EAJ



Odei Sallen-EH BILDU



Igor Iturain-EAJ



Mª Jesus Arruabarrena-EAJ

Ez da kasualitatea

Historiak erakutsi digu nahiz emakumeak erabakiak hartzeko espazioetan egon, ez dela bermatu politika feministak gauzatzea; izan ere, emakume izateak ez dakar berarekin feminista izatea.



Orioko Xaltxerak Emakume Taldea

Laugarren olatu feministan murgildu garen honetan, emakumeok* gizarteko esparru ezberdinak hartzen ari gara: bertsoarritza, kirola, eta baita politika ere; modu horretan, historikoki lehen aldiz, Orion, 2019ko udal hauteskundeetan, alkatetzarako lau hautagaietatik hiru emakumeak dira: Ana Priede, Anuska Esnal eta Lourdes Salsamendi. Ez da kasualitatea.

Kontuan izanda emakumeok esparru pribatutik publikorako bidean oztopo gehiago ditugula (erreferente gutxi, esparru pribatuaz arduratzeko heziak,...), nabarmentzekoa da Orioko herriaren kudeaketaren buru izateko hartu duten erronka. Maskulinizatua izan den eremu batean, emakumeak ikustea oriotarrantzat eredugarria da, hala ere, historiak erakutsi digu nahiz emakumeak erabakiak hartzeko espazioetan egon, ez dela bermatu politika feministak gauzatzea; izan ere, emakume izateak ez dakar berarekin feminista izatea.

Oriori begira, badira landu beharreko oinarritzko zutabeak, besteak beste, indarkeria matxistaren prebentzioa, emakumeon ahalduntzea sustatzea eta gizonen maskulinitate eredu berriak bultzatzea. Hori gauzatzeko, ordea, beharrezko deritzegu neurri zehatz hauei: berdintasun sail propioa eta berdintasun teknikari bat, zeharka edo transbertsalki arlo guztietan eragingo duena (gazteria, hezkuntza, hirigintza, kultura,...), eta hori burutu ahal izateko aurrekontua.

Orion pauso handiak ematen ari gara, horren erakusgarri emakumeon presentzia eremu sozio-politikoan. Ez gaitezen hor geratu, hurrengo lau urteetako erronka aipatu ditugun politika feminista horiek martxan jartzea izan dadila.

ZUK ERABAKITZEN DUZU



Ana Priede



ALKATEGAIA

BOTOA EMAN



O R I O



Aiako EH Bilduko alkategai Iñaki Telleria. KARKARA

“Udaletxeko ateak parez pare ireki, eta herritarren eta udalaren arteko zubiak sortu nahi ditugu”

Iñaki Telleria Astigarraga

Aiako EH Bilduko alkategaia

Hogeitamar urtetan suhiltzailea izan da Iñaki Telleria azkoitiarra, eta erretiratu zenean Aian bizi zela erabaki zuen. Aiako EH Bilduko zerrendaburua izango da hilaren 26ko udal hauteskundeetan, eta udaleko martxa aldatzea du helburu.

AIORA LARRAÑAGA

Zer dela eta erabaki duzu EH Bilduko alkategai aurkeztea?

Aia etorri nintzenean oso abegikor hartu ninduten eta harreman polita dut aiarrekin. Alkategai aurkeztea proposatu zidaten eta erronka onartu egin dut; denbora dut; Euskal Herria eta euskara maite ditut; Aia maite dut bertako herritar sentitzen naizelako, eta ulertu dut herriak zer arazo dituen. Uste dut badaudela bideak horiei irtenbidea emateko. Aitortu behar dut zenbaitek ez dutela argi ikusten *kanpoko alkatea* izatea. Dena dela,

niri asko gustatzen zait historia, eta jakin nuen 1545ean, Aia Sayaz herribilduaren parte zenean, Francisco de Idiak azkoitiarra izan zela alkatea. Anekdotak alde batera utzita, bizitzan zehar hainbat herritan bizi eta lan egitea tokatu zait eta uste dut eskarmentu horrek aberastu egin nauela, eta ikuspegi zabalagoa izateko balio izan dit gainera.

Horrez gain, taldea ere nabarmendu nahiko nuke, herriko gai desberdinak jorrazteko talde lana



ezinbestekoa baita. Talde sakona da EH Bilduk osatu duena; herria sentitzen duena, euskalduna eta gizarte mailako arazoekin konprometitu.

Nola baloratzen du EH Bilduk azken agintaldia?

EAJren udal gobernua iraganean ainguratuta ikusten dugu. Azken lau urtetan alkate berria izan dugun arren, aurrekoaren jarrera eta balio antzekoa izaten jarraitzen du udal gobernua. Oso agintaldi gorabeheratsua izan da. Taldeko kideek aipatu dute Amezti etxearen auzian bakarrik sentitu direla, eta indar eta energia handia gastatu dute gai horrekin, agian herriko beste zenbait arazo alde batera utzita.

Zein hutsune ikusten dituzue herrian?

Uste dugu obrak bukatzen direnean ez direla behar diren ikuskapenak egiten. Hainbat eraikinek kalteak dituzte: saskibaloi kantxan errebote metrakilatuek denbora daramate puskatuta, herriguneko eta Elkano auzoko pilotalekuek itoginak dituzte, eta kultur etxera aterki batekin sartzeara osasunez ondo dagoenari nekeza egin ohi zaio, pentsa daiteke gurpildun aulkian sartzeara zer den. Bestetik, segurtasun arloan ere hainbat hutsune identifikatu ditugu taldean: Ardi Jolasetik gertu haurrak begiralekuaren azpira sartzeara oztokatzen zuen itxitura gaizki itxita egon da denbora luzez, eta konpontzeko eskatu behar izan dugu. Handik metro gutxira, oinezkoak igarotzeko pasabide bat dago, baina alboko maldaren desnibelak ez du araudia betetzen eta gurpildun aulkia behetik gora eror daitezke eremu horretan. Mota horretako hutsune ugari antzematen ditugu herrian.

Aiako Udalak norabide aldaketa bat behar duela uste al duzue EH Bildutik?

Guk ez dugu boterea nahi, guk udaleko martxa aldatu nahi dugu. Ezkerreko alderdia gara, eta herritar guztien ahotsa izan nahi dugu; horretarako herritarren eta udalaren arteko zubiak sortu nahi ditugu, udaletxeko ateak parez pare irekiz. Aurretik aipatu ditudan hutsune asko konponduta egongo lirateke udalak herritarren entzungo balitu. Ez dugu ahaztu behar, herritarrok udaleko ordezkariak aukeratzen ditugula herriko gaiak kudeatzeko, ez lau urtetan nahi dutena egiteko. Gainera, jakin badakigu, inor ez dela egia osoaren jabe, eta ikuspuntu desberdinek proiektuak aberasten dituztela argi dugu. Adibidez, mugikortasun arazoak dituen lagun batek herriko hirigintza beharren inguruan gainontzekook ez dugun ikuspuntua izango du; horregatik, guztiz baliagarria iruditzen zaigu pertsona horren iritzia kontutan hartzea.

Ildo horretan, udal barruan lan egiteko modua ere aldatu egin behar da. Proiektuak elkarlanean jorratu nahi badira, ez da bidezkoa txostenak udalbatzarra baino bi egun lehenago entregatzea beste alderdiari, ez baitu ekarpenak egiteko aukerarik ematen.

Alkatetzat lortzen baduzue zein izango dira EH Bilduren lehentasunak?

Gure helburua ez da proiektu ikusgarriak bultzatzea, herritarren beharrak asetzeari eman nahi diogu garrantzia. Askotan agintariek aipatzen dute herri txikietan gordetzen direla Euskal Herriaren sustraiak, ondarea, hizkuntza edota usadioak, baina herri txikietako bizimodua gero eta zailagoa eta garestiagoa bihurtzen ari da. Aian, esaterako, etxebizitzaren alokairua ez da batere merkea, eta horri garraio gastuak gehitu behar zaizkio. Egoera horretan, mila euro irabazten dituen gazteentzat, banatutako lagun batentzat edo pentsio txikia duen adineko pertsona batentzat oso zaila da Aian bizitzea. Horregatik, guk alokairuaren aldeko apustua garbia egiten dugu, eta garrantzitsua iruditzen zaigu diru-laguntza lerroak sortzea herritarrek herrian bertan etxebizitza alokatu dezaten.

Bestalde, herriko garraio publikoak ere aldaketa sakona behar duela uste dugu. Orduetgiak ez daude herritarren beharretara egokituta, eta hori konpondu beharra dago. Horretarako, lehenik eta behin garraio publikoaren inguruko galdeketa egin nahiko genuke. Gure helburua da Urola Kostako garraiobide publikoekin lotura zuzena duen autobus zerbitzua izatea; garai bateko Landabusen antzekoa, baina eguneratua. Bestetik, zenbait herri txikitan martxan dauden diruz lagundutako taxi zerbitzu berezia ere jarri nahi dugu; horrek autobus zerbitzuak dituen hutsuneak beteko bailituzke.

Aurreko bi ardatzen osagarri, herria biziberritu nahi dugu. Jai egun berezietan giro aparta izaten da Aian, baina egunerokoan ere herritarren mugimendu sentitu nahi dugu, eta horretarako aiarrei bizimodua erraztu behar diegu. Herriaz hitz egiterakoan ez dugu herrigunea soilik kontutan hartzen, auzoetan ere eragin nahi baitugu. Ildo horretan, uste dugu, gauza txikiekin auzotarren bizi kalitatea asko hobetu daitekeela.

“Guk ez dugu boterea nahi, guk udaleko martxa aldatu nahi dugu.”

Gizarte gaietan ere norabide aldaketa behar al du herriak?

Bai, gizarte arloan ere urratsak egin nahi ditugu, larrialdi egoera bizi duten herritarrei lagunduz edo gizarte gaiak jorrazteko ekimenak antolatuz. Arlo horretan, hainbat neurri lantzen ari gara. Besteak beste, emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, EH Bildutik IBIan biktimentzako hobariak ezartzea proposatu genuen, baina denbora aitzakiatzat jarrita ez zuen onartu udal gobernua.



Aiako EAJko alkategai Nekane Arrizabalaga. KARKARA

“Herritarrengandik gertu egoten saiatu naiz beti”

SINADURA: AIORA LARRAÑAGA

Nekane Arrizabalaga

Aiako EAJko alkategaia

Bigarren aldiz Aiako EAJren zerrendaburua izango da Nekane Arrizabalaga maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan, eta gogoz eta ilusioz beteta heldu dio erronkari. Azken lau urtetan alkate gisa bizitako esperientzia eta etorkizuneko helburuak izan ditu hizpide aiarrak.

**Bigarrenez Aiako EAJko zerrendaburu aurkeztu zara.****Zerk bultzatu zaitu horretara?**

Hasierako ilusioa bizi-bizirik dut, eta agintaldi berrian herriaren alde lanean jarraitzeko gogoz nago. Herrigintza egiten dugu guk, herritarren ongizatea baita gure helburu nagusia. Bide horretan, oso lagun onak izan ditut azken lau urtetan, eta babestuta sentitu naiz uneoro. Horrek lanean jarraitzeko eta proiektu berriak sortzeko gogoia eta indarra eman dizkit.

Zer moduzkoa izan da udalbatza osatzen duzuen alderdion harremana agintaldian zehar?

Udal Gobernuan beti jarrera eraikitzailea izan dugu, udalbatza osatzen dugun alderdiok elkar ulertzea izan baita gure helburua. Beti argi izan dugu, alderdion arteko elkarlana garrantzitsua dela herriaren garapenerako. Dena dela, zenbaitetan ez da posible izan elkarlana, EH Bilduko zinegotzi batzuk oztopo ugari jarri baitituzte bidean, eta hainbat gai politika egiteko erabili dituzte. Maila politikoan kritika egitea bidezkoa iruditzen zait, baina inongo argudiorik gabe epaitegira bide penaletik joatea pertsonen kontra joatea dela uste dut. Liskar egoera hori oso gogorra izan da guretzat. Kooperatiba eta eskola berriaren gaia da horren adibide. Hala ere, argi utzi nahi dut, epaileak ez duela gaizki egindakorik atzeman Kooperatibaren auzian; are gehiago, zehaztu du, truke horri esker eskola berria egitea lortu dela herrian udala zorpetu gabe.

Guk ez dugu judizializatzen den politikan sinesten. Herrigintza oinarri duen politika eredu sinesten dugu, eta hori frogatu dugu une zailtan. EH Bildu liskarra sortzen saiatu arren, ez gara beren jokoan sartu. Bik ez dute eztabaidatzen, batek nahi ez badu.

Agintaldi berrian udal taldeen arteko harremana hobetzea nahi al duzu?

Guretzat elkarlana oso garrantzitsua da, eta herriaren onerako udalbatza osatzen dugun bi taldeon harremana hobetzea gustatuko litzaidake. Dena dela, datozen lau urtetan zer jarrera izango duen galdetu beharko zaio EH Bilduri, elkarlanerako prest dauden edo orain arteko bidea jarraituko ote dute. Ildo horretan, garrantzitsua iruditzen zait hauteskunde kanpainan ere zintzotasunez eta garbi jokatzeko, aurkari politikoak errespetatuz eta norberaren proiektuak azpimarratuz.

Zer nabarmenduko zenuke zure kudeaketatik?

Agintaldiaren lehen zatian eskola berriko proiektuan buru-belarri murgildu ginen, herriarentzat ezinbestekoa zela sinesten genuelako. Inbertsio garrantzitsua izan zen eskola udalarentzat, eta agintaldiaren bigarren zatian proiektu apalagoak garatu ditugu. Adibidez, Ardi jolasa edo dema plazako proiektua. Horrez gain, gaztedi arloan ere lan handia egin dugu. Gazteak herriarekin oso identifikatuta sentitzen dira egun eta eragile garrantzitsu bihurtu dira Aian antolatzen ditugun ekimenetan. Apalak izan gara eta lan asko egin dugu zalaparta handirik atera gabe.

Horrez gain, herritarrengandik gertu egoten ere saiatu naiz. Dena dela, jakin badakit, beti ez dela posible herritarrei nahiko luketen erantzuna ematea. Izan ere, udalaren eskumenak mugatuak dira, zenbait gai administrazioen artean jorratu behar ditugu, eta prozesu horrek ez du beti eskatzailearen erritmo bera edukitzen, eta batzuetan luzatu egiten dira gaiak. Hala ere, gu herritarren beharrei erantzunak emateko gaude.

Agintaldi berrian zein izango dira zure lehentasunak?

Igerilekuan berritze lanak egitea da gure proiekturik garrantzitsuenak. Garai berrietara egokitu eta gune erakargarria sortu nahi dugu herritarrentzat eta bisitariarentzat. Izan ere, herriko nortasuna galdu gabe herri erakargarria izan nahi dugu, eta igerileku berritua turismo eskaintza osatzeko baliagarria izango dela uste dugu.

Bestetik, Lardizabal Eskolako eraikin zaharra eraberritu egin nahi dugu. Gure asmoa beheko solairuan gimnasio bat eta adineko pertsonen jarduerak egiteko aretoa sortzea da. Horrez gain, herrian musika ikasteko toki egokirik ez dugunez, eskola zaharreko lehen solairuan horretarako egokitutako gelak egin nahi ditugu.

Hirugarren erroka, kaskoko etxebizitza zaharrak eraberritzeko lerroa sustatzea da, modu horretan gazteen etxebizitza beharri irtenbidea eman nahi diogu, herriko gazteek herrian bizitzeko aukera izan dezaten.

Pasa berri den agintaldian garrantzi berezia eman diezu auzoei. Dinamika horrekin jarraitzeko asmoa al duzu?

Pozik gaude auzoetan egin dugun lanarekin. Herria denok gara, kaskoak eta auzoek osatzen baitugu Aia. Azken lau urtetan proiektu garrantzitsuak egin ditugu auzoetan, Andatzako auzo elkarte eta erabilera anitzeko aretoa dira horren adibide. Udalak parte-hartze prozesua egin zuen auzotarren beharrak ezagutzeko. Proiektua auzotarrengandik sortu zen; Andatzako auzotarrek proiektuan sinesten zuten eta beraiek izan dira bultzatu dutenak, udala bidelagun dutela. Proiektu bikaina egin dugu elkarlanean. Hurrengo agintaldian ere orain arteko dinamikarekin jarraitu nahi dugu. Herritarren, auzotarren eta udalaren arteko elkarlanean sinesten baitugu EAJn.

“Hasierako ilusioa bizi-bizirik dut, herriaren alde lanean jarraitzeko gogoz nago.”

Euskal Herria Bildu (EH Bildu)

1. Iñaki Telleria Astigarraga
2. Hodeiza Sallen Molinero
3. Aitor Arregi Eizagirre
4. Gontzal Alday Salaverria
5. Irati Eizaguirre Aguirre
6. Martxel Alday Salaverria
7. Amaia Iturzaeta Orbañanos
8. Jose Antonio Jaca Aldacur
9. Aritz Arruti Mintegi
10. Maitane Arrillaga Aldalur
11. Jaione Iribar Mancisidor



Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV)

1. Nekane Arrizabalaga Manterola
2. Arkaitz Iruretagoyena Lerchundi
3. Iñigo Etxabe Azkue
4. Miriam Sarasola Eizmendi
5. Estibaliz Lizarreta Merino
6. Aharoa Zuloaga Mintegui
7. Asier Ibarburen Ibarburen
8. Sergio Cubero Belinchon
9. Jon Ander Azpiroz Otegui
10. Jose Antonio Idarreta Aguirresarobe
11. Maria Jose Aguirrezabala Erquicia



Euskadiko Alderdi Sozialista- Euskadiko Ezkerra (PSE-EE)

1. Maria Arantzazu Indo Larrañaga (independentea)
2. Valentin Elola Azpeitia
3. Antonio Lucas Azpeitia (independentea)
4. Adoracion Herrero Gomez
5. Mikel Aguirrezabal Iribar
6. Neil Mohamed Ronquillo Peña
7. Juan Luis Toledo Partida
8. Felix Cecilio Gonzalez Rodriguez
9. Leire Castañeda Diaz
10. Maria Hortensia Campos Alvarez
11. Angel Perez Moran

**Euskal Herria Bildu (EH Bildu)**

1. Anuska Esnal Oliden
2. Ainara Munduate Iguaran
3. Xabier Ibarguren Azkue
4. Beñat Solaberrieta Albizu
5. Bakarne Oliden Albeniz
6. Bittor Andres Alkorta
7. Koldo Olariaga Larrañaga
8. Olaia Eizagirre Herrero
9. Aitor Larraza Irastorza
10. Eider Salegi Arruti
11. Laida Iturralde Larrañaga
12. Juan Vicente Lasa Carricaburu
13. Nagore Rementería Argote

**Euskadiko Alderdi Sozialista- Euskadiko Ezkerra (PSE-EE)**

1. Ana Priede Merchan
2. Fernando San Martin Gubia
3. Maria Asuncion Tena Ramirez (independentea)
4. Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa
5. Maialen Romero Blanco
6. Carlos Iraola Zubizarreta
7. Gemma Serna Portugal
8. Igor Lopez Quicios
9. Maialen Mateos Jimenez
10. Manuel Compadre Vargas
11. Cristina Sanchez Herrero
12. Juan Carlos Hernandez Garrido
13. Miren Achutegui Roncal

**Orain Orioko Aukera Independentea (Orain)**

1. Jose Angel Iparragirre Alberdi
2. Jesus Maria Arriaran Elcorobarrutia
3. Igor Acero Zabala
4. Ekiñe Miralles Mugica
5. Eder Etxeverria Corta
6. Maria Cristina Luisa Salsamendi Ayestaran
7. Arantxa Manterola Lertxundi
8. Ane Miren Aguirrebeña Guereca
9. Jon Joseba Otaegui Aizpurua
10. Jaime Jose Colado Gutierrez
11. Luis Maria Aduriz Iruretagoyena
12. Iñigo Arruti Aguirre
13. Miriam Uranga Egorza

**Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV)**



1. Maria Lourdes Salsamendi Goñi (independentea)
2. Andoni Torres Martinez
3. Jon Basurko Sarasua (independentea)
4. Amaia Gozategi Urbieta (independentea)
5. Jose Javier Gomez de Segura Arce (independentea)
6. Eugenio Antonio Cotado Iturain
7. Ainhoa Usandizaga Zubiaurre
8. Edurne Elena Etxeberria Sedano (independentea)
9. Juan Maria Irastorza Elorza (independentea)
10. Miren Elitxabet Huegun Arruabarrena
11. Maria Angeles Genova Solabarrieta
12. Leandro Azcue Mugica
13. Noemi Ostolaza Arcauz





Apirilekoek eman dutena

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak pasa berri ditugu. Ahal Duguren botoak aintzat hartu gabe, Udal hauteskudeei begira kalkulu simple bat egin dugu, eta boto kopuru bera jasoko balute Aian EAJ-k 7 zinegotzi eta EH Bildu-k 4 lortuko lituzkete. Orion, aldiz, Orain plataformaren botoek baldintzatuko dutela jakinda, EAJ-k 7, EH Bilduk 5 eta PSE-k 1.



Fitxak

Huteskunde	ESP2016	ESP19
Eguna	2016/06/26	2019/04/28
Errolda	4.273	4.488
Boto-emaiak	2.601	3.278
Abstentzioa	% 39,13	% 25,36
Baliogabeak	11	14
Zuriak	21	11
Hautagai-zerrenden botoak	2.569	3.253

Fitxak

Huteskunde	ESP2016	ESP19
Eguna	2016/06/26	2019/04/28
Errolda	1.520	1.546
Boto-emaiak	826	997
Abstentzioa	% 45,66	% 34,58
Baliogabeak	5	0
Zuriak	2	1
Hautagai-zerrenden botoak	819	996

Apirilaren 28an, Espainiako Gorteetarako hauteskundeak izan ziren, eta 2016an bezala EAJ izan da alderdirik bozkatuena Aian eta Orión. Dena dela, 2016ko hauteskundeekin alderatuz hainbat aldaketa izan dira boto banaketan.

Aian gora egin dute nabarmen EAJk eta EH Bilduk, lehenak 125 boto gehiago jaso ditu, eta bigarrenak 101 gehiago. PSOE ere igo egin da Aian, eta 2016an lortutako botoak bikoiztu egin ditu, 20 boto jasotzetik 44 boza jasotzera pasa da. Bestalde, Ahal Duguk beheraka nabarmena jasan du, 79 boto gutxiago jasota.

Orión 2016ko hauteskundeetako datuekin alderatuta, nabarmen egin dute gora EAJk eta EH Bilduk, 434 eta 349 boto gehiago jaso baitituzte hurrenez hurren. Bestalde, behera egin du Ahal Duguk, 254 boto gutxiago jasota. PSOEk 347 herritarren babesa jaso du, 2016an baino 161 boto gehiago jasota.

Bitxikeri gisa, Aian zein Orión, aurreko hauteskundeetatik aurtengoetara alderdi politiko berri bat gehitu da botoen zerrendara: VOX. Aian 7 boza lortu ditu eta Orión 23.

Boto kontaketa eta parte hartzea

Gaur egun boto kontaketa azkar egin eta ikusten badugu ere, pasa den igandean asko kostatu zen Oriónko emaitzak jakitea. Udaletxeko botean, agidanez, luze jo zuen kontaketa, eta 23:30 jota eman zuten Oriónko boto kontaketa %100ean.

Parte hartzeari dagokionez, 2016an, Aian %54,34koa izan zen. Aurten, %65,42 ra igo da.

Orión, berriz, %60,87 izan ziren botoa eman zutenak. Oraingoan, ordea, %74,64raino igo da.

“Udaletxeko botean, agidanez, luze jo zuen kontaketa eta 23:30 jota eman zuten Oriónko boto kontaketa %100 zenbatuta.”



Maiatzaren 8ko mahai-inguruan aterako argazkia. KARKARA

Lau urtean egindakoa, eta lau urtera begira egitekoa, hizketagai

Maiatzaren 8an egin zen KARKARA-k antolatutako eta Xabier Etxeberriak gidatutako hauteskunde bezperako mahai-ingurua. Eztabaidaren tonua lasaia eta errespetuzkoa izan zen, eta parte hartzea handia izan zuen.



ANA PRIEDE

Udaleko lanak eta egunerokotasuna oso gertutik ezagutzen ditu Ana Priedek. Legealdi bat darama zinegotzi lanetan, eta eskarmentu handia du udalean. Administrarritza ikasketak ditu PSE-EEko alkategaiak, baina bestelako lanetan ere jardun izan da. Mahai-inguruan gaztelaniaz hitz egin zuenez, bere erantzunak KARKARAko taldeak itzuli ditu aldizkarian argitaratzeko.



ANUSKA ESNAL

Orioko Udaleko tripak oraindik ez ditu ezagutzen Anuska Esnalek, lehenengo agintaldia izango baitu 2019an hasiko dena. Kudeaketan eskarmentua du eta harreman zuzena administrazioarekin. Gizarte laguntzailea da; Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte larrialdietako zerbitzu burua da 2014tik, eta azken bi urteetan Orioko Herri Ikastolako lehendakaria izan da.



JOSE ANGEL IPARRAGIRRE

Joxe Angel Iparragirrek ere ondo gertutik ezagutzen du Orioko Udala eta haren funtzionamentua, bigarren legealdia du Orain taldeko alkategaiak. Miriam Urangak zinegotzi postua utzi zuenetik bera izan da Orain taldeko bozeramailea. Horrez gain, Telefonikako langilea da *Iparra*.



LOURDES SALSAMENDI

Bi legealdi daramatza zinegotzi lanetan udalean, Turismo eta Kultura Batzordeburua da. Administrarritza ikasketak ditu Salsamendik. Azken urteak arlo horretan lanean igaro ditu, Quiron Hospitalean, Basozabal Golfean eta azken 6 urteetan Donostiako Muguerza Igoailuak enpresan.

Agintaldia amaitzean da, eta mahai-inguruan zaudeten alderdiak eta taldeak udalbatzako kide izan zarete azken lau urteetan. 2015-2019 agintaldiaren zer balantze egingo zenukete?

LOURDES SALSAMENDI

Guretzat balantzea ona izan da nahiz eta inoiz nahikoa ez izan. Lau urteetan hainbat proiektu atera dira aurrera eta amaitu ez direnak hurrengo legealdian egingo dira. Hondakinen bilketa sistemaren egokitzapena ere legealdi honetan gauzatu da, nahiz eta arlo honetan hobetzeko gauza asko dagoen. Bide onetik goaz, egia esan. Gaur egun, %70eko birziklapen mailan gaude eta hori seinale ona da.

Bi ikastetxeetan eta Danbolin Musika Eskolan ere berrikuntzak egin ditugu, liburutegia ere berritu da. Orain liburutegiaren ordutegia landu behar da, iruditzen zaigu goizez ere irekitzeko garaia dela. Etxeluze Gaztetxea ere eraiki dugu eta gazteekin hitzarmena lortu dugu.

Proiektu horiek guztiak EAJ taldearen babesari esker atera dira aurrera, beste taldeen adostasunarekin.

ANUSKA ESNAL

EH Bildun lau zinegotzi izan ditugu eta hauei oposizio lana egitea tokatu zaie horiei. Nahiz eta itzaleko lana den, aberasgarria izan da guretzat. Alderdi guztiekin adostasunera iristen saiatu gara, baina zubiak gehien bat Orain eta PSE-EErekin egin ditugun. Zubi horien elkarlanari esker hainbat ekimen aurrera atera ahal izan ditugu: liburutegia berritzea, ongizate zerbitzuan administrari baten kontratazioa edo pobrezia inguruan egindako hausnarketa. Aipamen berezia, dikeko planari, bide ilun hori argitu eta aurrera ateratzea lortu dugulako.

Etorkizunari begira lau zinegotziek erakutsitako bidetik jarraitu nahiko genuke, zubiak eraikiz. Eta gobernuaren lanaren inguruan esan, ika-miketean sartu ordez, gure taldeak pauso hau ematearen arrazoi bihurtu duela.

JOSE ANGEL IPARRAGIRRE

Gobernuan egon den alderdiak ez du gehiengoa izan, baina izango balu bezala jokatu du, lan gutxi eta koordinazio eskasa. Adibide bat, obretako batzorde batean gai zerrendak bost puntu zituen, horiek eztabaidatu eta gero *bestelakoak* izeneko puntua dago, hor beste 20 puntu jarri ziren mahai gainean, noski, informaziorik gabe tratatu genituen. Beste adibide bat jartzearen, aurrekontuak direla eta Ogasun batzordeak 5 izan dira. Gaur gaurkoz



oraindik akta bat bera ere ez dugula jaso.

Oposizioaren lana ere aipatuko nuke, Anuskak esan bezala, kofradiaren momentuan jabetu ginen hirurok elkartuta baginela zerbait egiteko gai eta honi heldu genion. Nahiz eta gobernuko alderdia aurka eduki, lortu egin genuen. Horrek eman digu aukera aurrekontuetan ondo moldatzeko. Gobernuak planteatutako aurrekontua oposizioak hobetu du.

ANA PRIEDE

Bi lehenetsun izan ditut legealdi honetan, hirigintzako arazoak konpontzea eta zerbitzuak hobetzea. Zorionez, nire proposamen guztiak baloratu dituzte beste alderdiek, eta aurrera atera dira. Kostata, baina, anbulatorioko ateak aldatzeko aukera izan dugu. Bestetik liburutegia bezalako zerbitzuak hobetu ditugu. Askok harritu nau Lourdesek aipatu izana EAJren proposamenen artean liburutegia berritzea egon dela. Hasieratik nire kapritxoetako bat izan da eta. Uste dut liburutegia ez dela soilik liburua irakurtzeko. Kultura eta heziketa dira, zaindu eta mimatu egin behar dira.

EAJk ez du apusturik egin liburutegiaren alde, eta interesik ere ez du erakutsi. EAJren gestioan, eguneroko lan eta organizazio falta izan ditu.

Eta ondorioak ekarri ditu horrek, existitu ez diren batzordeak, adibidez.



Azpiegitura eta zerbitzu berriak behar al ditu Oriok? Zuen programetan zer proposamen egin dituzue ildo horretan?

ANUSKA ESNAL

Uneoro hiru errealitate ezberdinekin kulunkan ibili beharko dugu. Alde batetik baditugu martxan dauden azpiegitura eta zerbitzuak. Batzuk zaharkituta daudenak, besteak etekina ateratzen ez zaiena, eta hausnartu egin nahi dugu horren inguruan.

Bigarren kulunka eremua herrian dauden behar batzuk asetzera litzateke: anbulatorio berri bat, gizarte zerbitzuak eremuz aldatu beharra... Proiektu hauetarako oinarritzkoena iruditzen zaigu herritarrekin, erabiltzaileekin eta langileekin landu ahal izatea.

Hirugarrenik, denontzat irisgarria den herri bat nahi badugu tasa eta zergetan eragin handia izango ez duten proiektuak egin behar ditugu. Denok proiektu *megapolitak* sortzeko aukera dugu, baina beti besteen esku dago. Gainera, ezin dugu bermatu hemen saltzen den dena gauzatuko denik.



JOSE ANGEL IPARRAGIRRE

Zer behar du Oriok? Erantzun asko izan ditzake, baina, zer zerbitzu jasan ditzake Oriok?

Guk, hasteko, ditugun azpiegitura eta zerbitzuen irisgarritasuna bermatu eta arrisku puntuak ezabatu nahi ditugu. Erabili eta ondo aprobetxatu, dezente ditugu eta probetxua atera gabe. Gauza txikiak ondo eginaz, egoera asko hobetzen da.

Hala ere ez dugu esan nahi azpiegitura berriak egin behar ez direnik. Beti ere kontutan izanda jendearen iritzia, talde guztiekin elkartu, zerrenda *potente* bat egin eta diruaren arabera, lehenetsi. Egin eta ondorengo kostua ere kontutan izan behar dugu.

Bestalde, aipatu, zerbitzu asko herriko taldeek doan egiten dituztela. Eskerrik asko, motorra askotan beraiek direlako eta eskola ezberdinetako gure umeen erlazioak indartzen dituztelako.

ANA PRIEDE

Ziur nago zerbitzuen kalitateak herriko bizi kalitatean eragina duela. Jada baditugun zerbitzuak berritzen eta berriak sortzen jarraitu behar dugu.

Legealdi honetan oposizioko alderdiek zerbitzu berriak proposatu ditugu. 2018ko aurrekontuan bi partida jarri genituen arraunaren inguruko museoa sortzeko. Gure materiala, banderak... kondizio egokitan gorde eta kanpora ateratzeko: ikastetxeetara eta turismora.

Beste inbertsioa, teknifikazio zentroari probetxua ateratzeko bideratuko genuke, areto nagusian inbertitzeko: altzarietan, ikus-entzunezko ekipazioan... Horrela konferentzietarako eta edozein motatako ekitaldietarako prestatzeko. Bertan egiten den ekintza bakoitza kobratuz, diru sarrera berri bat izango genuke. Eraikina oso garestia ateratzen zaionez udalari, ondo etorriko zaigu.

LOURDES SALSAMENDI

Gure nahia Zaragueta aurrean udalaren lursailen salmentarekin, bertako etekina gune horretan erabiltzea da. Zaragueta frontoia egokitu behar da, eta Abaromendin kirol eta aisialdirako gune bat jartzea ideia ona iruditzen zaigu.

Bidegorria ere Kosta Tailerretik autobide azpira lotzea beharrezkoa da. Aztertu beharko genuke moila eta zubiazpiko bidegorrian lotura nola egokitu. Ikastola inguruan ere plangintza sakona egin behar dugu, herria handitzen doa eta anbulatorioa egokitu egin behar da. Lanean gabiltza Jaurlaritzarekin.

Ortzakan ere aisialdirako gunea eskatzen dute bizilagunek eta lanketa horrekin ere hasi nahi dugu. Foru Aldundiarekin Ortzaka eta Anibarko Portuko bideak sortutako arazoei soluzioa eman nahi diegu. Arizaga eta portuko lanak udara ostean hasiko dira. Oinezkoentzat gunea lortuko dugu, eta moilan kotxeentzat. Auditorio txiki baten beharra dago baita ere, Kultur Etxea txiki geratzen da eta kiroldegia handi.



Herritarrek alokatzeko etxebitzarik ez badago ere Orion, gero eta gehiago dira turismora bideratzen diren etxebizitzak. Horrez gain, etxe hutsak ere badaude. Etorkizun hurbilean, 400 etxebizitza berri inguru egitea aurreikusitako da herrian. Horiek beteko al dituzte herritarrek dituzten etxebizitza beharrak?

JOSE ANGEL IPARRAGIRRE

Etxea edukitzeko 200 oriotarren eskaria dago: 137 alokairurako eta 63 erosketarako. Aurreko urtean baino 30 oriotar gehiagok nahi dute etxea. Legealdi honetan bidea jorratu dugulakoan gaude. Muntokan, 50 etxebizitza alokairuan egongo dira babes ofizialeko erregimenean. Hasieratik, Orainen *tokea* izan zen lehentasuna oriotarrei ematea, entzun izan dugu hori ilegala dela... Beno, ba, hitzarmena sinatu dugu jada. Hasteko, Anibarko Portuan sei etxe dotazional egingo dira, aurten emateko moduan.

Amaitzeko, Muntoko etxeak egiten direnean etxe asko izango dira eta, gure ustez, galderari erantzunez, bai, beteko dugu herritarren beharra.

Bestalde, turismora bideratutako etxeen etekinak ez dira izugarriak. Etxe horiek arautzeko lanketa bat egin behar dela uste dugu, baita hutsik dauden etxeen jabeekin ere. Horrela, udalak bi sektoreei laguntzeko aukera izango du.

ANA PRIEDE

Argi dago Orion etxea erosteko aukera duenak, ez duela arazorik izango. Baina zer gertatzen da ezin dutenekin? Arazo larria dute. Irtenbidea, alokairua bultzatzea da, Iparrakesan bezala, legealdi honetan bi pauso garrantzitsu eman dira. Alde batetik, gazteentzako bideratuko diren sei apartamentuak, eta, bestetik, alokairu erregimenean eraikiko diren 55 etxebizitzaren inguruan sinatuko den hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin. Hitzarmen hori datorren legealdian sinatuko da, eta uste dut lortu zitekeen onena dela.

Bestalde, 600 metroko lokal bat izango du udalak, espero dut zati bat gazteleku berri bat egiteko bideratuko dela. Abian diren proiektu horiez gain, alokairuaren alde apustu egin behar dugu eta laguntza eman alokatu nahi duen jendeari: edadetuak, gazteak, ezgaitasuna dutenak...

LOURDES SALSAMENDI

Alokatzeko etxeen arazoa ez da Oriorena bakarrik, tamalez inguruko herrietan ere arazo berdina dago, alokatzeko gutxi eta garesti. Lanketa sakona egin beharra dago; alokairua bultzatu nahi badugu, baldintzak eta arauak aldatu behar ditugu.

Orion turismoan 33 daude erregistro zenbakiekin eta 16 erregistro gabe, ondo bideratuta lagungarriak dira



turismoarentzat. Anibarko Portuan gazteentzat 6 etxe egingo dira. Eta bizilagunek aretoa ere egokitua izango dute. Muntoko eremuan, esan duten bezala, babes ofizialeko 50 etxebizitza egongo dira eta areto bat.

Dikeko eremuari irtenbide egokia eman nahi genionez gaia ondo jorratu arte itxaron dugu. Dikek, kofradiak eta udalak sinatuta, 240 etxebizitza inguru egingo dira. Abaromendi inguruan 36 joango dira eta frontoi eremuan 26 bat. Aparkalekuekin kontuz ibili beharko dugu, beraz, uste dugu hurrengo lau urteetarako nahiko bete egongo dela etxebizitzaren gaia.

ANUSKA ESNAL

Oso zaila da salmenta libreko etxea erostea. Eta zer esanik ez gazteek, ezgaitasuna dutenek edo indarkeria matxistaren biktima direnek. Orion gero eta jende gehiago dago egoera horretan. Bestetik, jendeak ez du alokairuan eman nahi etxea eta azken aldian eman den korrontea da turismoari bideratzen zaiola alokairua.

EH Bildutik fokua jarri nahi dugu turismo jasangarria nahi dugula eta kompetentzia justuan sinesten dugula. Hori guztia legediaren barruan ematen den edo ez aztertu nahi dugu. Bestalde, datozen 400 etxebizitza horietatik portzentai bat babes ofizialekoak izango direla eta udalak erabakiko du etxe horiek izango duten nolakotasuna eta guk apustua egingo dugu alokairura bideratutako etxeekin.

Testuinguru hau kontutan izanda diru laguntza bat bideratu nahi dugu alokairuan etxebizitza eskaini nahi dutenentzat, beharrezko konponketak egiteko eta bestalde, ahulezian dauden pertsonentzat alokatu ahal izateko.



Aurreko agintaldian zehar, hainbat kexa egon dira Orion turismoa sustatzeko ezer gutxi egin delako. Zein da Orioko Udalak bultzatu beharreko turismo eredua?

ANA PRIEDE

Argi dut Orioko turismoak kulturari, gure inguruari eta garen marinel-herriari lotuta joan behar duela. Hori lortzeko agenda kultural zabal bat behar dugu.

Kanpoko turismoa erakartzeko, eta herritarrek bertan geratzeko. Hori, ordea, ezinezkoa da ez badugu aurrekontuko partida kulturara bideratzen. Gaur egun, 35.000 eurokoa da. Oso gutxi da hori, handitu egin behar da.

Bestalde, gure indarguneak bultzatu behar ditugu, hala nola errioa eta bere ingurua eta hondartza. Azken urteotan asko hobetu da bere kalitatea eta baita eskaintzen den zerbitzu aukera ere.

Azkenik, gure ondarea hobetu behar dugu. Mutiozabal, legealdi honetako apustua izan da. Orain bizia eman behar zaio ekintza kulturalak eskainiz. Uste dut indargune bat bilakatu dezakegula. Horrela, kalitatezko turismoa lortuz.

LOURDES SALSAMENDI

Lau urte hauetan ez da erraza izan turismoa bultzatzea, gehien bat turismo teknika-rik gabe jardun garelako. Denok batera hurrengo legealdia turismo plan jasangarri bat aztertu behar dugu.

Orioko itsasadarrak eskaintzen dituen aukera guztiak aprobetxatu behar ditugu. Ostalaritza eta merkataritzarekin elkarlana bultzatu behar dugu udaletik herria aurrera ateratzeko.

Baliteke legealdi honetan ez asmatu izana elkarlana kudeatzen, baina garai berriak datoz, non elkarlana eta komunikazioa izango den helburua.

Oriotarrok baliabide asko ditugu lantzeko eta besteei erakusteko, gure herria ibaiarekin lotuta dago, ogibidea izan da eta orain aisialdirako eta gure historia lantzeko izan behar du.

Ezinbestekoa ikusten dugu turismo mahai bat sortzea eta etorkizuneko Orío eraikitzea elkarlanean.

ANUSKA ESNAL

Oriok izan zituen urteak turistaz betetzen zena, herria bikoizten zuen kanpina, bagenituen olatu zoragarriak edo itsasbehera zoragarri bat Itxasperaino oinez joaten ginela baina hori dena desagertu egin zen eta noraezean gaude nortasunik gabe. Galdetzen digutenean inguruko herriek zer sartzen duten denok dekigu baina ez dakigu zer ikusi daitekeen Orion. Hori da gure errealitatea, ez dugula eredurik eta ezta ere markarik. Merkatarari eta turismoaren inguruko mahai baten sorrera bermatu nahi dugu. Hau ez da udalak bakarrik egin beharreko lana alor honetan lanean dabiltzanek ere badute zer esana.

Gristasun honetan badirudi argitasuna ematen digula Done Jakue bideak, azken urteetan erromesetz bete da herria eta gure asmoa da interpretazio zentroa erromesentzat aterpetxe bihurtzea eta bertan dagoen turismo bulegoa erdigunera, plazara bideratzea. Argi dugu EH bildutik turismoak gure nortasunean oinarri izan behar duela kulturaren ingurumenean eta jasangarritasunean.

JOSE ANGEL IPARRAGIRRE

Kexak izan dira, arrazoiarekin. Turismoan Orion pauso bat aurrera egin beharrean atzera egiten ari gara. Krisi garaian, kostata, kanpina eraberritu zen. 2011-2015 legealdian bi postu geratu ziren ateratzeko, kanpineko zuzendaria eta turismo teknikaria. Lau urte ondoren, kanpin zuzendaria hilabete doa lanean, eta teknika-rik ez dugu. Ez dugu ulertzen.

Turismo ereduari dagokionez, gu ere mahai horren alde gaude. Orion Santiago bidea eta errioa dira gertuko herriekin alderatuz desberdintzen gaituztenak. Turismoarekin batera ez dira ahaztu behar merkataritza eta ostalaritza, bultzada bat behar dute. Daudenei eta berriei sustatzen lagundu behar diegu. Parrilek ere gure ostalaritzan garrantzia izan dute eta desagertzen doaz, lagundu egin behar diegu.



Nahikoa al dira Orioko Udalak eskaintzen dituen gizarte laguntzak, herriko hainbat kolektibok dituzten beharrak asetzeko? Edo uste duzue udaletik ahalegin berezia egin beharko litzatekeela laguntza lerro berriak sortzeko?

LOURDES SALSAMENDI

Gure iritziz gizarte laguntza ez da inoiz nahikoa, gizartean uneoro sortzen direlako behar berriak. Dena dela, Orioko Udaleko Gizarte Zerbitzuek herritarren beharretara egokitu behar dute, herriak gizarte arloan dituen beharrak identifikatuz, eta mendekotasun, bazterketa edo larrialdi egoeran dauden herritarrei erantzuna emanaz.

Horrez gain, arreta berezia jarri behar dugu haurren eta gazteen babesgabetasun egoeran, prebentzioa eta irtenbidea landuz. Laster bi teknikarik eta idazkari batek osatuko dute gizarte zerbitzuetako taldea, eta herritarrentzat arreta pertsonalizatua eskaini behar dute.

Horrez gain, Tolosak argitaratu berri duen laguntza gida ere oso erabilgarria iruditzen zait, herritarrek beren eskubideak ezagutu ditzaten. Ez dugu inor atzean utziko.

ANUSKA ESNAL

Orion Gizarte Zerbitzu isolatuak ditugu, itxiak. Gizarte lanez hitz egiten dugunean, badirudi karitateaz ari garela, baina herritarren eskubideez ari gara.

Horregatik, guri ezinbestekoa iruditzen zaigu Gizarte Zerbitzuak herrira irekitzea, oriotarrek aukera izan dezaten bertara gerturatu eta informazioa jasotzeko

Horrez gain, Gizarte Zerbitzuek herriko beste eragileekin koordinatuta egon behar dutela uste dugu, eta elkarlanak egunerokoa izan behar du. Horregatik, gizarte arloko eragileekin egin genuen bileran Gizarte Zerbitzuak, Osakidetza eta ikastetxeak elkarlanean jarri genituen.

Bestetik, ezinbestekoa iruditzen zaigu Urola Kostako Udal Elkarteak gizarte zerbitzuen gaia lehenestea, herri txikiok hainbat gai ezin ditugulako bakarrik landu.

JOSE ANGEL IPARRAGIRRE

Orioko Udalak ez ditu diru-laguntza zuzenak ematen. Horretarako, Caritas bezalako elkarteekin dituen hitzarmenez baliatzen da. Diru-laguntza gehienak foru aldundiaren esku daude, eta herriko egoeraz kezkatuta, oposizioeko talde batek eskatuta, pobrezia txostena egitea eskatu zen. Azterketa egin zen, eta herriaren egoeraren argazki erreala ematen du.

Orion 300 etxebizitza inguruk oinarritzko arropa, elikadura, eta etxebizitza gastuak murriztu behar izan



dituzte. Horietatik 200ek pobrezia egoera larria jasaten dute, eta erdiek hotza pasa dute azken urtean.

Ongizate taldea indartu denez, uste dugu txostenak mahai gainean jartzen dituen pobrezia egoerei irtenbidea emateko diru-laguntza lerroak indartu behar diren aztertu behar dela.

ANA PRIEDE

Galdera hau ez dut nik erantzungo, Orioko pobrezia egoeraren inguruko azterketaren datu errealak emango dizkizuet. Hitzez hitz horrela dio: *Orioko etxebizitzaren %10ak, 200 familia inguruk, pobrezia egoera larria bizi du. (...) Orion pobrezia larrian dauden familien tasa, Euskal Autonomia Erkidegokoaren bikoitza da, eta Espainiar Estatuaren mailan kokatzen da. (...) Guraso bakarreko familien %15,6a pobrezia egoera larrian bizi da, hori arduraduna ama denean gertatzen da nagusiki, (...) 7-25 urte bitarteko haur eta gazteen %14a pobrezia egoera erlatiboan bizi da, %20,9 pobrezia egoera larria bizi duten familietan.*

Argi geratzen da orain arte ez dugula ondo jorratu gaia. Ezin ditugu datu horiek onartu, lotsagarriak dira. Horregatik, gizarte politikak sustatu behar dira udaletik. Nik bi proposamen nabarmendu nahi ditut; alde batetik, aurrekontuetan pobrezia energetikoari aurre egiteko laguntzak txertatzea, eta bestetik, familia ugarietara aplikatzen zaizkien hobariak guraso bakarreko familiei ere aplikatzea.



Orio ezaguna da herri euskalduna, arrantzalea eta arraunzalea izateagatik. Hala ere, globalizaioaren garaian, gero eta zailagoa da bertako kultur ondarea belaunaldiz belaunaldi transmititzea. Zein proposamen dituzue arlo horretan?

ANUSKA ESNAL

Orio herri euskalduna, arrantzalea eta arraunzalea bada, baina gauza gehiago ere bada. Guretzat euskara lehentasunezkoa da eta Udalak %100ean euskaraz funtzionatzea bermatu behar dugu.

Arrantza oraindik bizirik dagoen jarduera da eta guk dagokion erakundeetan bultzada eman nahi diogu. Bestalde, arrauna Kontxako Banderaz harago doala uste dugu, herriko ondarea baita. Herrian badugu merezi duen etekina ateratzen ez zaion Arraunetxea, eta uste dut nondik gatozen ondo uztartuta etekina atera beharko geniokeela, zoragarria baita bertan dugun kultur ondarea.

Hiru ardatz horiek zaintzeko, eta belaunaldi berriei helarazteko gai izan behar dugu, horretarako txertatu nahiko genituzke gure turismo lanketetan eta hezkuntzan.



JOSE ANGEL IPARRAGIRRE

Orioko Curriculumak herriko ondarea eta balioak helarazteko tresna izan behar du. Herriaren izaera arrantzalea arriskuan dago, gero eta bapore gutxiago baitaude herrian, eta Kofradia Zaharraren gaia adibide garbia da. Arrantzaleei laguntzeko aukera ezinhobea dugu. Gutxitan eskatzen dute, eta beraiei eskatu izan zaienetan, emateko prest egon dira beti. Kofradia Zaharraren arazoari oposizioak bultzatuta eman zaio irtenbidea, baina ez dakigu datorren agintaldian bermatuta egongo den lortu den hitzarmena.

Mutiozabal eta Kofradia eraberrituetan garatu beharko lirake arrantzale kultura eta balioak helarazteko proiektuak. Guztion artean erabaki beharko dugu zer eta nola egin, herri galdeketen bitartez.

ANA PRIEDE

Ados nago orain arte azaldu dutenarekin. Kulturaren, hezkuntzaren eta turismoaren bidez helarazi behar dugu gure herri ondarea.

Agintaldi honetan *Orio Galbaetatik* izeneko proiektua garatu zen, belaunaldi berriei arrantza eta horren bueltako ohiturak ezagutarazteko. Oso dokumental interesgarria da, baina udaletxeko artxiboan gordeta dago. Garrantzitsua iruditzen zait hori eskoletan, Kultur Etxean edo komunikabideetan ezagutaraztea.



LOURDES SALSAMENDI

Mutiozabal izango da herriko kultur ondarea belaunaldiz belaunaldi helaraziko duen gunea. Gure itsas ondarearen erreferentzia izan behar du Mutiozabalek eta horretarako lan egingo dugu. Garai bateko ontzigintza berreskuratzea helburu duen proiektua osatuko dugu Mutiozabalen, beste hainbat erakunderekin elkarlanean. Ontziola puntu bizia izatea nahi dugu. Proiektu horretan ikastetxeek eta itsas munduan diharduten eragileek protagonismo berezia izango dute; gainera, herritarrek proiektuan parte hartzea izan behar dutela ere uste dugu.

Orion Euskal Herriko kulturari ekarpen garrantzitsua egin dioten izen handiak ditugu; horiek utzi duten eta uzten ari diren ondarearen aitortza egingo dute, eta beren lana hedatuko dugu.

Anak aipatu duen moduan, agintaldi honetan *Orio Galbaetatik* proiektua jorratu da Kultur batzordeak sustatuta, eta oso garrantzitsua iruditzen zaigu Orioko Udalak horrelako proiektuak babestea.

Aipamenengatik, nahi izanez gero beste hautagaiei erantzun diezaiokezue edo beste gairenbat gehitu.

JOSE ANGEL IPARRAGIRRE

Mahai-inguruan jorratu ez den gai batez hitz egin nahi nuke, udal langileen antolamenduaz. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 2014ko ekitaldiko fiskalizazio txostena egin zion Orioko Udalari. Txostena oso zehatza da, eta esaten du 2014an diruaren kudeaketa bikaina izan zela.

Bestetik, txostenak dio lanpostu zerrendan jasotako lanpostuez gain, 2014ko abenduaren 31n, 40 langile zeudela egiteko iraunkorrak betetzen, 20 langile kontratu mugagabeekin, hamar langile aldizko finkoak uda sasoirako, eta beste hamar langile obra kontratu zaharrekin. Kontratu guzti horiek lanpostu zerrendan aldaketak izapidetu gabe egin ziren, eta aldaketak berez udalbatzak onartu behar zituen, eta Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu. Hau oso larria da.

Orain taldeak urteak daramatza udal langileen antolamendua hobetzeko eskatzen, eta 2017an empresa bat kontratatu zen zeregin horretarako; bederatziz hilabetetan egin behar zena, hamazazpi hilabeteren ondoren bukatu gabe dago.

Bukatzeko, esan nahi dut, azken urteetan atera diren lanpostuak oposizio publiko bidez atera direla.

ANA PRIEDE

Gaur hemen egiten ari garena oso garrantzitsua da, egin dugunaz eta egin nahi dugunaz informatzen ari baikara. Nik uste dut ariketa hau maizago egin beharko genukeela, eta horretarako bide proposa udalbatzarrak bideoan grabatzea izango litzateke. Modu horretan edozein herritarrek bere etxetik udalbatzarrean adostutako gaiak eta bertan esandakoak ezagutu ahalko litzukete.

Agintaldian zehar KARKARA aldizkariak askotan egin du udalbatzarrak grabatzeko eskaera, oposizioko taldeak hasieratik ados agertu ginen, baina EAJk hainbat oztopo jarri ditu.

Horregatik, uste dut hurrengo agintaldian udalbatzarrak grabatu egin behar direla, udala gardena izan dadin.

LOURDES SALSAMENDI

Nik oriotarren nortasuna azaldu nahiko nuke. Handitzen doan herri txiki bat gara, baina handia da gure arima, eta aurrean ditugun erronkei heltzeko aukera ematen digu. Gure neska-mutil arraunlariak bezala beti lehian gaude, aurrera begira, eta olatu txar bat etortzen bada hurrengo

hartzeko prest egoten gara. Arrauna da hemendik kanpo ezagutarazten gaituena, eta oso harro sentitu behar dugu horretaz. Arraunean bezala talde lanean denok bat eginez, denok aurrera egin behar dugu, eta atzera begiratzen badugu, indar gehiagorekin aurrera egiteko izango da.

Gainontzeko arloetan ere oso aberatsak gara, kirol eskaintzan, kultur munduko taldeetan. Eragile guzti horien bidez erakusten diegu gure haur eta gazteei taldean lan egiten, guztiontzat etorkizun oparo bat berdintasunean sortzeko.

Horrez gain, herriko ekimenak antolatzeko lan egiten duten boluntario guztien lana nabarmendu nahiko nuke; udalak laguntza eskatu duenean, herritarrak beti eskua botatzeko prest egon baitira.

Azkenik, aipamen berezia egin nahi diet udal langile guztiei, haien laguntzarik gabe oso zaila izango litzatekeelako gure lana aurrera ateratzea, eta beti gure lana errazteko prest izaten direlako.

ANUSKA ESNAL

Benetan bete nau 2011-2015 agintaldian sustatu ziren ekimenek, mahaiek eta aurrekontu parte-hartzaileek arrakala utzi dutelako herrian. Horregatik, gure taldekide Beñat Solaberrietak egindako lana aitortu nahi nuke. Bestalde, azken lau urteetan EH Bilduko zinegotziak aipatu nahiko nituzke, zubi lanak egiten erakutsi digutelako eta bide horretan jarraitu nahi dugu.

Horrez gain, aipatu nahi dut udala ez dela zinegotzi talde bat soilik, bertako langileek ere osatzen baitute. Udal ordezkari izateko pausoa eman dugunok ez goaz teknikarien lana fiskalisatzera, zubia izan behar baitugu udalaren eta herritarren artean.

Bukatzeko esan, guk mahaiek berreskuratuko nahi ditugula eta herritarren iritzia kontutan hartuko dugula. Gainera, prest gaude elkarlanean adostasunetara iristeko.





Hauteskunde kanpainan bete-betean gaude. Herritarrek zergatik eman behar dizuete botoa?

ANA PRIEDE

Niri botoa eskatzeak lotsa ematen dit, eta nahiago dut udalean lanean zergatik jarraitu nahi dudan azaldu. Duela lau urte zinegotzi kargua hartu nuenean, ez nuen ezagutzen udaleko martxa eta zortzi batzorde nituen. Lan asko egin ostean, asko ikasi dut, eta badakit zerk funtzionatzen duen, eta zer arlotan egin behar diren aldaketak.

Gainera, udalean lanean jarraitu nahi dut hainbat proiektu garrantzitsu zintzilik geratu direlako, besteak beste, plan orokorra, langileen antolaketa, edota gizarte zerbitzuen gaia. Uste dut gainontzeko alderdiekin elkarlanean ekarpen garrantzitsua egin dezakedala.

Bestalde, duela lau urte oriotarrek nigan jarri zuten konfiantza eskertu nahi dut, eta oraingo hauteskundeetan ere horrela izatea nahi nuke, gure herriaren alde lanean jarraitu ahal izateko. Bestalde, duela lau urte oriotarrek nigan jarri zuten konfiantza eskertu nahi dut, eta oraingo hauteskundeetan ere horrela izatea nahi nuke, gure herriaren alde lanean jarraitu ahal izateko.



LOURDES SALSAMENDI

Oriotik, oriotarrekin eta oriotarrentzat lan egingo dugu. Herria biziberritu eta indartu nahi dugu, baita etorkizuneko beharretarako prestatu ere. Turismo jasangarriaren bidetik egin behar dugu lan; bakean, justizian eta erreparazioan sakonduz, historia hurbilean izan diren giza eskubideen urraketa guztiak azaleratzeko.

Gure kultura ondarea, merkataritza eta ostalaritza, kirola eta kultura, eta herria bera balorean jarri behar ditugu eta bultzatu, bertako eragileekin elkarlanean. Orio inklusibo eta solidario baten alde egingo dugu lan, gizarte anitz eta abegikorra sortzeko.

Puntu guzti horiek eta programako proposamenak, ilusioz eta ardurarekin landuko ditugu, EAJ taldeko guztiok. Maite dugunaren alde jarduteko gogoz gaude eta oriotarrak herrian bizi eta hazteko egingo dugu lan, sustraietan errotutako herri izaera mantenduz.

Herritar guztiei zuzendutako erantzunak landuko ditugu, eta proiektu sendoa, freskoa eta anitza osatu.

Kudeaketa gertukoa eta herritarren parte-hartzea aintzat hartuko duena izango da. Esaerak zaharrak dioen moduan, *zaindu ezazu maite duzun hori*.

ANUSKA ESNAL

Gure taldea aurkezpenik behar ez duen taldea da. Ez dugu gure burua saltzeko asmorik, ez dugu botoa eskatzeko asmorik, gu ematera gatoz.

Guk herrigintzan lortu dugun ezagutza, lana eta konpromisoa eskaini diezazkioke herriari. Talde berria gara, eta denekin eta denentzat lan egin nahi dugu; besteak beste, feminismoa, ekologia eta euskara ardatz hartuta.

Uste dugu aldaketa behar eta nahi duela herri honek, eta horretarako prest gatoz.

Azaroan hasi ginen elkar lanean, elkarrekin amesten eta elkar aberasten, eta pausu hau emateko atrebentzia izan dugu.

JOSE ANJEL IPARRAGIRRE

Aurreko zazpi galderetan erantzun dugunagatik eta azken zortzi urteetan egin dugunagatik eskatzen dut botoa Orain taldearentzat. Gu ez gara alderdi politiko bat. Ez daukagu interes ekonomikorik ezta politikorik ere.

Uste dugu oso garrantzitsua dela udalean Orain bezalako plataforma bat egotea, gehiengo absolutuak ez direlako onak. Plataforma batek gainontzeko taldeei akordioetara iristera behartzen die, eta hori onuragarria izaten da herriarentzat.

Bestetik, alderdi guztietako zerrendak aztertzen egon gara eta hasiberri asko ikusten dugu zerrendatan. Guk berriz eskarmentua dugu, eta hori garrantzitsua iruditzen zaigu agintaldi berriari begira; gauzak hasieratik bere tokian jartzeko batez ere.

Horrez gain, Orain beti izan da gertukoa herritarrekin, eta oriotarren batek edozein kezka badu, gure taldeko kideren batena jo dezake, eta gaia bideratzen eta zubi lana egiten saiatuko gara.

Arrazoi horiengatik uste dut garrantzitsua dela Orain udalean egotea.

Bene-benetan hauxe da



Xabier Etxeberria

Beste alderdietakoek ondo egin zutena onartzeko beldurrik ez zuten agertu ez batzuk ez besteek. Hautagai bat bere lehiakide handienari loreak botatzen ere entzun ahal izan genuen.

Bzjakina dena sarritan ausarta ere izaten da eta, KARKARAko lagunek eskatuta, Orioko Kultur Etxera hurbildu nintzen maiatzak 8an, bertako alkate izateko hautagaien debatego moderatzaile lanak egitera.

Politika arloko mahainguruetan inolako esperientziarik gabea, jakinmin puntu bat ere banuen egia esan, nolako giroa arnastuko ote zen horrelakoetan. Hautagaiek eragin zidaten lehen sentsazioa, baina, ezaguna egin zitzaidan: musikariek kontzertua baino lehen edota bertsoariak oholtzara igo aurretik izaten duten ilusio eta urduritasun nahasketa berbera nabari zitzaien lauri.

Mikrofono eta gainerako kontuak erreparatu eta, hasi aurretik, trago bat hartzera abiatu ginen backstageko itzaletara, Itzala tabernara. Pixkat zirikatu nituen, telebistan politika debateetan ematen diren ika-mika garrantzik ez ote zuten errepikatuko galdetuz. Erantzuna laster:

Gu ez gara politikariak. Herri mailakoa ez da politika kontua, kudeaketa baizik. Herrian sortzen diren arazoak gestionatzea alegia.

Futbolaren konparazioa etorri zitzaidan burura. Galaktikoak Sanchez, Casado edota Urkullu eta Otegi. Preferentekoak herri txikietako alkategai eta zinegotziak.

Azkenean partidua edota, nahiago baduzue, bertso-saioa hasteko unea iritsi zen. Alderdiekin adostutako galdera-sortan, aukeran inprobisazio gutxi eta bertso-paper gehiegi, kritikatzu hori egiten uzten badidazue. Baina ez da erraza hainbeste jenderen aurrean hitz egitea eta Xabier Letek kantatu zuen moduan: *Norbaitek esango balu, hobe nukela juatia / neri berdín zait zuek hemen ta ni hor egotia.*

Gainera, goraiatzekoa lau hautagaiek izan zuten jarrera. Bakoitza beretik, errespetuz aritu ziren, baita desadostasunak azaltzerakoan ere. Asertibitatea esaten omen zaio horri eta, barkatuko didazue hitz-joko eskasa, erabateko aziertoa izan zen nire ustetan. Are gehiago. Beste alderdietakoek ondo egin zutena onartzeko beldurrik ez zuten agertu ez batzuk ez besteek. Hautagai bat bere lehiakide handienari loreak botatzen ere entzun ahal izan genuen, eta guztien ahotan elkar-lanerako etengabeko deia, mahaien jiran gauzak eztabaidatzekoa. Kexu bat lauek baita ere: pena dela herritarrak udaleko kontuetan gehiago ez inplikatzeko, interes falta hori, askotan sumatzen duten urruntasuna.

Bertara azaldu ziren oriotarrak - jendetza-, kontrakoaren eredu izan ziren ordea: gai orokorragoak -ekologia, berdintasuna- zein eguneroko bizitza baldintzatzen duten kontu zehatzak -Bertako bidearen egoera, irisgarritasun arazoak- plazaratu zituzten eta hautagai denak zintzotasunez erantzun egokiak ematen ahalegindu ziren.

Bukaeran txaloak, izerdia, nekea baina baita herri bat herriago egiten duen zerbait bizi izan genuenaren irudipena ere.

Jendeaz agurtu eta oinez zubia pasa eta alboko herrira nindoalarik, bizitakoaren erreparatzea egin nuen, alkategaiengandik jaso ahal izan nituen sentipenak zerrendatuz. Ilusioa, elkarrenganako errespetua, herritarrekiko gertutasuna, arazoei erantzun egokia emateko ahalegina...

Aiara iritsi nintzenerako, debatearen hasierako tragoan eman zidaten erantzuna izan zela gaueko gezur bakarra erabaki nuen. Galaktiko horiena ez dakit zer izango den baina politika, bene-benetako politika, herrietakoa hauxe da.



Jakes Goikoetxea

Hauteskritika

Gizartea gero eta indibidualistagoa, gero eta hedonistagoa den garaiotan, komunitatearen zentzua gero eta lausoagoa den gizarte honetan, herria eta herritarren bizimodua hobetzeko lan egitea. Askok egiten dute; beste askok ez.

18 urte betetzeak ez zidan ilusio berezirik egin, ez adinez nagusi bihurtu nintzelako, ez gidabaimena ateratzeko aukera nuelako, ezta behingoz bozkatu ahal izango nuelako ere. Alegia, agintariak eta hagintariak aukeratu, demokraziaren festa-n parte hartu. Ez naiz alderdi, plataforma edo mugimendu politikoetatik gertu ibili. Politika —politikoen kudeaketa esatea zuzenagoa litzateke— urrunetik bizitu izan dut. Urte batzuk egin nituen bozkatu gabe, hauteskunde menuan aurkitzen nuenak konbentzitzen ez ninduelako eta, bozkatzuz gero, ez neukalako gogorik lau urtean damututa egoteko.

Hasi nintzen botoa ematen. Batzuetan, norbaiten alde; besteetan, norbaiten alde baino gehiago, beste norbaiten kontra. Udaletxeko martxa oso gertutik jarraitzea tokatu zitzaidan, KARKARAn lanean. Gertuegi agian, garai hartan herriari buruzko erabakiak nork eta nola hartzen zituen zuzenean ikusteko: alkateak besoa altxatu; zinegotziek, zer bozkatzuten ari ziren ia jakin gabe, aginte besoari begiratu, okertzeko beldurrez; eta haiek ere besoa gora. To eta no demokrazia.

Aldatu dira garaiak. Pasatu dira alkateak eta zinegotziak. Denetarik: onak, erdipurdikoak eta txarrak. Botere gosedunak, argazki zaleak, konprometituak, langileak... Herritarren ordezkariak gehiago zatitu da eta horrek eztabaida eta akordio premia ekarri du. Jada ezin da gehiengo osoaren alperra pasatu.

Urteak joan dira eta nire konpromiso politikoak, ordea, bere horretan jarraitzen du. Urrun. Eta konpromiso politikoa ez da zuzenean politikan jardutea soilik, herritarren ordezkari izatera ausartzea —ausardia behar baita, besteak beste—. Konpromiso politikoa da herria hobetzeko lan egitea, zentzu eta arlo guztietan. Gizartea gero eta indibidualistagoa, gero eta hedonistagoa den garaiotan, komunitatearen zentzua gero eta lausoagoa den gizarte honetan, herria eta herritarren bizimodua hobetzeko lan egitea. Askok egiten dute; beste askok ez. Maiatzaren 26an aukeratuko ditugun ordezkariak badute zer egina; gainerakook ere bai.

Bukatzeko, eskaera bat udal ordezkariari, oinarritzkoa, baina salbuespena izan ohi dena: izan daitezela ausartak erabakietan eta formetan, eta herriaren eta herritarren onura izan dadila helburu nagusia, alderdien izen-abizenen gaineratik, tantoa noren markagailura joango den axola gabe. Udal politikak, herrigintzak, ahalbidetzen du, ez baititu beste politika batzuen mugak, itxurakeria eta zarata. Hurrengo alkatea emakumea izango da. Ea horrek laguntzen duen.

Herritarren zalantzak argitu dituzte alkategaiek

Oriotarrek alkategaiei galderak egiteko tarteak izan zuten mahai-inguruaren bigarren zatian. Kirola, Bentako bidea, Topagune Berdea, berdintasuna eta itunen aukera jarri zituzten mahai gainean.

Maiatzaren 8an, asteazkenarekin izan zen hauteskundeetara begira antolatutako Mahai-Ingurua. Lehen zatian, KARKARaren galderak erantzun zituzten hautagaiek, banan-banan. Bigarren zatian, ordea, bertaratu ziren herritarrek hartu zuten hitza. Berehala altxa zituzten eskuak galderak egiteko prest, denbora justua zela eta, guztiak ez zuten izan zalantzak argitzeko aukera.

Galdera hau denentzat da. Denok aipatu duzue kirola, baina jakin nahiko nuke udalak San Silvestre lasterketaz gain, zein kirol ekimen antolatzeko asmoa duen. Izan ere, 2011n kirol-mahaia martxan jarri zen, baina azken lau urtetan dirua banatzeko bakarrik bildu da.

LOURDES SALSAMENDI

Gainontzeko herrietan kirol ekitaldi ugari izaten dituzte, eta guk ere saiatu beharko genuke eragileekin elkarlanean kirol ekitaldien eskaintza zabaltzen. Modu horretan urtean zehar agenda bizi bat izatea lortuko genuke, eta kanpotarrak ere etorriko lirarteke Oriora. Erronka garrantzitsua da eta borondatea eskatzen du.

ANUSKA ESNAL

Herrian badugu kirol teknikari bat eta haren zeregina izan beharko luke kirol ekitaldiak sustatzea. Bestetik,



EH Bilduk kirol-mahai hori berreskuratzea bermatuko du. Teknikariak eta kirol-mahaiak elkarlanean herrian kirol ekintzat sustatzeko gai izan beharko lukete.

JOSE ANJEL IPARRAGIRRE

Kirol-mahaia 2011n sortu zen ilusio handiarekin, eta kirol aurrekontua banatzeaz aparte beste hainbat helburu zituen. Ildo horretan, esan nahi dut, kirol ekitaldiak antolatzeko kirol elkarteek ere gogoia jarri behar dutela, eta uste dut batzuk dagokien diru-laguntza jasotzera mugatzen direla.

Neurri batean ulertzen dut, elkarteetako arduradunak normalean boluntarioak izaten dira, eta egunerokoan lanez gainezka egoten dira, beren taldeak entrenatzen eta elkartearen martxa kudeatzen.

Niri ere pena ematen dit kirol-mahaiaren beherakadak, eta kirol-mahai indarberritua nahiko nuke datorren agintaldiari begira. Nik neuk kirol batzordearen erantzukizuna hartuko banu, astero-astero kirol teknikariari asteko balantzea eskatuko nioke, eta eragileekin harremana bultzatuko nuke.

ANA PRIEDE

Ni ere Iparrarekin bat nator, eta uste dut kirol elkarteek harreman zuzenagoa izan beharko luketela udalarekin; laguntza eskatzeaz harago doan hartu-eman. Gainera,



taldeak dira udalari kirol ekitaldien egitarau anitza eta osatua izaten lagundu diezaiketen bakarrak.

Horregatik, lehen urratsak kirol-mahaia sustatzea izango da, eta ezinbestekoa iruditzen zait mahaia maiz biltzea, taldeen arazoez, gabeziez eta martxan jarri nahi dituzten ekimenez hitz egiteko.

Kirol arloarekin jarraituz, duela zenbait urte Munduko Eskubaloi Txapelketa Espainian jokatu zen, eta eskubaloi jokalaria ohia naizenez, Alemaniako Selektzioak Orion jokatzeko aukera sortu zen. Udalean eskaera egin nuen, eta oztopo mordoak jarri zituzten, eta ez zen posible izan. Aurreko urtean ere Alemaniatik deitu zidaten Oriora etorri zitezkeen galdezka. Oraindik erantzunaren zain nago.

ANA PRIEDE

Gai honetaz dudak lehen informazioa da.

JOSE ANJEL IPARRAGIRRE

Nik ere ez dut horren berririk izan.

LOURDES SALSAMENDI

Penagarria da horrelako zerbait pasatzea. Uste dut gaizki ulertu bat eta deskoordinazioaren bat egon dela. Izan ere, horrelako eskaintzak esku-zabalik hartuko ditugu

udalean.

Bentako bidean luizia izan zen duela hainbat hilabete eta ordutik bidea hondatuta eta moztuta dago. Udalak bidea konpontzeko asmorik ba ote duen jakin nahiko genuke bizilagunek.

ANA PRIEDE

Ni hirigintzako batzordeko kidea naiz eta *Bentako* bidearen konponketa lanak laster hastea espero dugu. Luizi handia izan zen, eta hori konpontzea inbertsioa handia denez, kontratazio-mahaia sortu behar izan da. Horrek betebeharrak administratibo batzuk eskatzen ditu, eta mantsotu egin da gaia.

Dena dela, dirua aurrekontuetan dago, proiektua bideratuta dago eta laster makinak lanean hastea espero dugu.

JOSE ANJEL IPARRAGIRRE

2011-2015 agintaldian ere gauza bera gertatu zen. Luizia izan zen eta bidea hondatuta geratu zen. Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin negoziatzen saiatu ginen finantziario lortzeko, baina ez genuen lortu; beraz, salbuespen egoera zenez, altxortegitik hartzea erabaki genuen. Oposizioan zegoen EAJk berriz esaten zuen altxortegia ez zela

erabili behar; berdin zitzaion bidea hondatuta egotea eta ez konpontzea. Azkenean, altxortegiko diruarekin konpondu zen bidea.

Orain berriz luizia izan da Bentako bidean eta altxortegiko diruarekin konpondu da, talde guztien adostasunarekin.

Bentako bidearekin jarraituz, egia da obra handiak koordintatzeko denbora behar dela. Dena dela, ni ere bertako bizilaguna naiz, eta esan behar dut bide hori guztiz utzita dagoela. Bide bazterretan larra dago eta bideraino iristen da. Lotsagarria da bide horren egoera.

ANA PRIEDE

Orioko Udalarri dagokio Bentako bideko bide bazterra garbitzea, eta brigadaren lana da. Hala ere, aitortu behar dugu udaleko brigada lanez gainezka izaten dela beti, eta ez da iristen eskatzen zaion guztia betetzera. Obrarekin batera bidea egokitzen saiatuko gara.

LOURDES SALSAMENDI

Uste dut lanketa bat egin beharko dela, foru aldundiak lan horiek bere gain hartzeko. Izan ere, ibilgailu mordoa pasatzen da bide horretatik.

ANUSKA SALSAMENDI

Egia da, bizilagun gutxiko auzoetan horrelako gabeziak bizi direla. Ni San Martin auzoan bizi naiz eta ez da herriguneko Erribera auzoan bizitzea bezalakoa. Gu saiatuko gara kaskoaz haragoko begirada izaten.

JOSE ANJEL IPARRAGIRRE

Guk uste dugu, horrelako gaiak beste erakundeekin kudeatu beharrekoak direla. Arazoa konpontzeko diru-laguntzarik lortzen ez badugu, udalaren esku dauden baliabideak erabili beharko ditugu horretarako.

Kirol-mahaia bezala, Topagune Berdea ere sortu zen 2011n, eta txostena egin zen mugikortasunaren inguruan. Alkategaiei galdetu nahi diegu, zer proposatzen duten oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna hotzeko.

LOURES SALSAMENDI

Guri ezinbestekoa iruditzen zaigu Kosta Tailerretik Hondartzara bitarteko bidegorria egitea. Beste erronka, Anibarko Portutik datorren bidegorria herrira iritea izango da. Moila aldeko zatia nahiko konplikatu da, baina adituen laguntzarekin irtenbidea bilatzea espero dugu. Iruditzen zait hurrengo agintaldia, mahaien agintaldia izango dela, denon ekarpenak behar baititugu herriko hainbat gairi irtenbidea emateko.

ANUSKA ESNAL

2011-2015 agintaldian sortu zen Topagune Berdea,



eta 2019tik aurrera lehentasuna izango da hori berriz martxan jartzea.

Eragileekin egindako bileretan, mugikortasunaren arloan gabezia batzuk jaso genituen eta horiek bermatzen saiatuko gara.

Horrez gain, esan, Topagune Berdea dokumentua zaharkitua geratu dela 2012ko irailetik, eta berriz bultzada bat ematen saiatuko gara.

JOSE ANJEL IPARRAGIRRE

Gu irisgarritasunaren alde gaude, baina jasangarritasunaren alde ere bai. EAJk komentatu du Kosta Tailerrean eta Goiko Kalera igotzeko igogailuak egin nahi dituztela.

Dena dela, kontutan hartu behar da horrelako proiektua egiteko beste nonbaitetik kendu behar dela.

ANA PRIEDE

Agintaldia ondo hasi genuen, bidegorri sarean hainbat zati berri ere egin genituen. Hasiera horretan, harreman zuzen genuen Herri natur taldearekin eta bilerak



egiten genituen maiz, baina harreman hori galdu egin da.

Datorren agintaldiari begira, zentzuzko proiektuak garatuz herriko bidegorri sarea bukatzea lehentasunezko gaia iruditzen zait, eta uste dut gaia lantzen dugunean herriko natur taldearen parte-hartzea oso garrantzitsua izango dela.

Xaltxerak talde feministaren galdera. Zer egingo duzue hurrengo agintaldian berdintasun politiken inguruan?

LOURDES SALSAMENDI

Gure programa lantzeko herriko eragile desberdinekin bildu gara. Saiatu nintzen Xaltxerak taldearekin bilera bat egiten, baina ez didate erantzun.

Nire asmoa zen berdintasunaren arloan dauden beharrez beraiekin hitz egitea. Adierazi nahi diet, beren

JOSE ANJEL IPARRAGIRRE

Xaltxerak taldeak eskatuta, ahalduz programa martxan jartzeko ados agertu ginen alderdi guztiak, eta horri bultzada ematea izango da lehen pausua.

Orain arte ez dugu izan herrian berdintasun teknikaririk, eta hutsune handia genuen arlo horretan. Teknikari berriak merkatutako urratsak jarraitzen baditugu, berdintasunean aurrera egin dezakegula uste dut.

ANA PRIEDE

Ados nago Anuskak eta Iparrak esan dutenarekin. Berdintasunaren gaia jorratu beharrekoa da, eta agintaldi honetan gai horretan gidatuko gaituen teknikaria izango dugu.

Ez da udalaren gaia soilik, beste eragileek ere bat egin



ekarpenak jasotzeko eta lantzeko prest nagoela.

ANUSKA ESNAL

Badakigu berdintasun gaiak gizarte langileak jorratuko dituela, baina nik ez dut uste hori gizarte zerbitzuetatik landu behar denik. Nik uste dut feminismoak eta euskarak oinarri izan behar dutela udaleko eremu guztietan, eta gure egunerokoan kontutan hartuko dugu ikuspuntu feminista ere.

beharko baitute ahalegin horretan.

ANUSKA ESNAL

Zaharkituta ditugun gizarte zerbitzuak sustatzeko gizarte langile bat ekarri dugu, baina berdintasun gaiak lantzeko ardura ere ezarri diogu. Berdintasuna ez da urtean bi ekintza antolatzea, udaleko sail eta batzorde guztietan eragin behar baitu.

Nik uste dut teknikari berriari lan karga handia

emanda, ez bata eta ez bestea ez ditugula bultzatuko.

Orain taldeari eta PSE-EEri galdera. Giltza izango bazenute, zenen alde egingo zenukete?

ANA PRIEDE

Nik hasieratik argi nuen, ez zaizkit gehiengo absolutuak gustatzen, eta ez dut hori bultzatuko duen ezer egingo. Nahiago du oposizioan egon eta proiektuak bozkatu, eta ez dut EAJrekin eta EH Bildurekin hitzarmenik egin nahi, nire independentzia mantendu nahi baitut.

Dena dela, hitzarmenez harago, badago beste aukera bat, udalbatza osatzen duten talde guztiez osatutako udal gobernua. Uste dut, emaitza onak emango lituzkeela, alderdi guztiek elkarlana egingo baikenuke.

JOSE ANJEL IPARRAGIRRE

Duela zortzi urte udalera iritsi ginenean, aldaketaren nahia antzeman genuen. Nahiz eta erabakia polemikoa izan, eta gure taldean haustura bat gertatu, gaur egun egoera hartan ondo egin genuela uste dugu. Jakin badakigu Gure botoa beharrezkoa ez bada, ez digutela kasurik egingo.

Beharrezkoa bada berriz, gure programan

oinarritutako hainbat marra gorri markatuko ditugu, eta baldintza horiek betetzea ezinbestekoa izango da gure botoa jasotzeko.

Dena dela, nik uste dute EAJri eta EH Bilduri galdetu beharko geniekeela, ea gobernua irekiko duten edo batzorde eta liberazio guztiak berentzat hartuko dituzten. Hori gertatu da agintaldi honetan, EAJk gehiengoa izan gabe. Horregatik, galdera hau egin nahi nieke beste bi taldeei.

LOURDES SALSMENDI

Garai berriak datoz, eta gehiengoa lortzen badugu gainontzeko taldeei gobernuan parte hartzeko aukera eskainiko diet, ardurak banatuz, elkarlanean sinesten baitut.

Adibidez, uste dut Anuska Esnal hautagaia gizarte arloan oso baliagarria izango litzatekeela herriarentzat.

ANUSKA ESNAL

Ez dugu lidertza inposatzaile batean sinesten, elkarlanean sinesten dut eta elkar aberastu behar dugula.

Hala ere, hauteskudeen ondoren alde guztiekin bilduko gara, Orio hobe bat lortzeko helburuarekin.



1

Koordinazioa eta prebentzioa ardatz, eskubideak bermatzeko

2

Kultura, izan zirenen eta izango garenaren lokarri

3

Herri irisgarri eta jasangarriago baten alde, pertsonak erdigunean

4

Izaera eta nortasunetik, herria biziberritu




ANUSKA
ESNAL
OLIDEN

Zurekin ORIO gara

Gizarte langilea da eta Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte larrialdietako koordinatzailea. Kudeaketan eskarmentua du eta harreman zuzena Administrazioarekin.

1. Anuska Esnal Oliden
2. Ainara Munduate Iguaran
3. Xabier Ibarguren Azkue
4. Beñat Solaberrieta Albizu
5. Bakartxo Oliden Albeniz
6. Bittor Andres Alkorta
7. Koldo Olariaga Larrañaga
8. Olaia Eizagirre Herrero
9. Aitor Larraza Irastorza
10. Eider Salegi Arruti
11. Laida Iturralde Larrañaga
12. Bixente Lasa Karrikaburu
13. Nagore Rementería Argote
14. Ibon Arruti Roteta
15. Oihan Gozategi Urbieta
16. Nora Solano Salaberria
17. Gorka Puertas Orbañanos
18. Nieves Arruti Iceta
19. Amaia Olazabal Leonet
20. Gotzon Igoa Agirrezabal
21. Jon Agirresarobe Lopetegi



ORIO

BAT EGINIK

LOURDES SALSAMENDI GONI
ORIOko ALKATÉTZARAKO HAUTAGAI

MARKEL OLANO ARRESE
GIPUZKOAKo DIPUTATU NAGUSIRAKO HAUTAGAIA



ej
PNV

EAJ-PNV.EUS



EMAN BOTOA